


MONREAL DE DEVA



Gu Deba'n bizi gera.
 Eta Iziar da Deba'ko auzo bat; baiña, Iziar zan zaarago.
 Iziarrek ba-ditu beste auzo batzuek ere. Auen artean daude Lastur, Endoya eta Elorriaga.

Deba Iziar'tik sortu zan 1.342'an.
 Eta izena artu zuan onela: "Monreal de Deva".
 "Deva" zan ibaia eta ba-da beste ibai bat ere izen orrekin Santander eta Asturias'en arteko muga.
 Izen orrekin erria ba-da Inlaterra'n.

Deba'ko erria ibaiaren ondoan bildu zan; Leenago baserriak sakabanatuta zeuden eta eurak bakarrik bizi ziran.

Baiña, 1.342'an Iziar'tik jetxi ziranak erri-bildua edo erri-billa egun zuten. (Erderazko "villa" euskerazko "billa" tik omen dator)

Ibaiak itxasoakin eskubitik egiten duan muturrean jaso zuten beuren erri-billa.

Beba Gipuzkoa'n dago. Gipuzkoa, berriz, Euskalerrian. Euskalerrriak ba-du beste izen bat ere: Euskadi. Euskaki euskotarren erria da. Euskotarrak dira Euskalerrian jaiotakoak, naiz eta euskeraz jakiñ ez.

Euskalerrria, berriz, izan bear luke, euskeraz dakitenen erria.

Euskalerrriak, edo Euskadi'k, zazpi alderdi ditu: lau, mugatik ego-aldera; beste iru, mugatik ifar-aldera. Muga ori ez da gurea, España eta Franzia'ren artekoa, baizik.


Euskalerrriko arma-arriak sei zati ditu; Euskalerrria'k, berriz, zazpi alderdi.

Ori zergaitik da?

Ego-aldekoak auk dira: Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nabarra. Ifar-aldekoak, berriz, auk: Lapurdi, Zuberoa, eta Benabarra.

Benabarra, zazpigarren zati au, leen Nabarra ren zati bat zan. Erderaz deitzen zioten onela: "La Merindad de Ultrapuertos". "Puertos" orrek Auñamendi edo Pirineos etako goiko gaillurretako pasadizo edo atea esan nai du. "Ultrapuertos", berriz, ate oien beste aldeko lurrak dira: Benabarra'koak.





Izena Euskadi, Sabin Arana-Goirik asmatu zuan, euskaldunen aberria izendatzeko. Pagoatik pagadi eta lizarratik lizardi bezela, euskotik Euskadi ateratzen da. Ikurriña era beraz asmatutakoa da: gorria, orlegia eta zuria.

Deba'ko lenengo biztanleak leizetan bizi zirari. Kobetan.

Ba-dira gure inguruan leize ugari-

Garrantzi eta inportantzi aundiena iru auek daukate: Ermitia, Urtiaga eta Ekain Irurak daude Deba'ko mapan.

Arbill mendian ere bada beste bat.

Aurtengo udaran (1976), Jesus Altuna, Pablo Areso eta beuroen laguntzaildek aztertu dute.

Ez dute gauza aundirik arkitu.

Ez da gizonaren bizi-lekua izan. Bertan , marmota deritzan animaliaren ezurrak topatu dituzte.

Marmota toki elurtsuetan bizi da; Arbillen ere izango ziran garai aietan elurrak eta izotzak. Galantak.

Orregaitik edo, gizona ez zan bertan biziko. Ez da, beintzat, bertan gizonen arrastorik.

Ermitia'ko koba-zuloan, leizean, bi zulo, bi tunel iriki dituzte Behobia-Bilbao'ko autopista egiteko.

Ondamendi eta kalte aundiak egiñ ornen dituzte leiza barruan oraindik aztertzeke zegoan zatian.

A. Arrinda
(Eskolan 1976)